



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko martxoaren 18a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketa (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Atarrabiako Lorenzo Goikoa I eta II ikastetxe publikoen egoera larriari konponbidea emateko bitarteko tekniko eta ekonomikoak jar ditzan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko gobernua premiatzen da drogak kontrolatzeko egungo politikak hobetu ditzan, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (6. or.).

—Adierazpena, arrazakeriaren aurkako estatu plan bat onestearen alde Amnesty International egiten ari den kanpainaren aldekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da Aitzoingo kuarteleko tiro-poligonoa itxi dezan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak bazter utzia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoingo tiro-eremua desagertarazteko urratsak eman ditzan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak bazter utzia (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Defentsa Ministerioari berriro eskatzen zaio Ezkaba mendian militarrek su-armekin egiten dituzten maniobrak berehala gera ditzan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Goi-mailako Musika Kontserbatorioari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egin [\(11. or.\)](#).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko 2003rako plantilla organikoa eta 2002ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda [\(12. or.\)](#).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa

AKATS ZUZENKETA

2003ko martxoaren 12ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko Foru Lege proiektuaren testuan akats bat dagoela oharturik (23. orrialdea), foru legearen akats zuzenketa hau argitaratuz zuzentzen da.

– Hamabigarren xedapen gehigarriaren testua hauxe da:

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Lanbide-jarduera bereziki arriskutsu edo neketsuak.

Nafarroako administrazio publikoen montepioetan eskubide pasiboak sortzen dituzten funtzionarioei, foru lege honek indarra hartzen duenetik

aurrera, baldin eta lanbide-jarduera bereziki arriskutsu edo neketsuetan lan egin izan baldin badute, foru lege honetan ezarritako erretiro-adinak murriztuko zaizkie Gizarte Segurantzako kasuan kasuko araubide bereziaren arabera jarduera haiei dagokien koefizientea jarduera horietan egiazki lan egindako denbora-epeari aplikatuz suertatuko den epean, eta Gizarte Segurantzako ziurtagiri bidez frogatu ondoren.”

– Hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarriak hamahirugarren eta hamalagarren xedapenak izanen dira aurrerantzean, hurrenez hurren.

Iruñean, 2003ko martxoaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikulua ezarritakoa betez, 2002ko abenduaren 2ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Nafarroako merkataritza buruzko uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa Biltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra ordezteko zuzenketa. Artikulu bakarrari testu berria ematea proposatzen dugu. Hona:

“Nafarroako Gobernuak saltoki handiak ezarri edo zabaltzeko lizentzia edo baimenatarako luzamendu bat ezarriko du, saltoki handien lurralde eredu berriak indarra hartu artekoa, Nafarroako merkataritza buruzko 17/2001 Foru Legeko 5. xedapen gehigarriari jarraituz.

Luzamendu horrek eragina izanen du foru lege honek indarra hartzen duen unean foru lege honetako 23.4 artikulua aipatzen duen Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailearen hasierako txotena ez duten salerosketa lizentzia berariazkoaren eskari guztietan.”

Zioak: Saltoki handien lurralde eredu berria prestatzeko 17/2001 Foru Legeak aurreikusia daukan sei hilabeteko epea aldatu nahi da, eta hobeki zehaztu nahi da zein diren lizentzia eskari berritzaletan jotzen direnak, proposatzen den luzamenduari loturikoak.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Atarrabiako Lorenzo Goikoa I eta II ikastetxe publikoen egoera larriari konponbidea emateko bitarteko tekniko eta ekonomikoak jar ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Atarrabiako Lorenzo Goikoa I eta II ikastetxe publikoen egoera larriari konponbidea emateko bitarteko tekniko eta ekonomikoak jar ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxearen egoerari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, batzordean eztabaidatzeko.

Proposamenaren azalpena

Ikasturte honetan Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa bikoiztu da, eta halatan sortu da, D eredurako, Lorenzo Goikoa II ikastetxea.

Banatze horrek tentsio handia eragin du, baina tentsio hori arindu egin da Hezkuntza Departamentuak aurreko egoera hobetzeko izanen zela hitz ematean.

Sei hilabete igaro dira, ordea, eta hobetu baino okertu egin da egoera. Bi eraikinen egoera gero eta okerragoa da, eta gurasoen elkarteen nahiz eskola kontseiluen eskaerak, berriz, gero eta handiagoak dira. Astearte goizean, azkenik, gela bateko sabaia behera etorri zen ikasleak bertan zeudenean, eta horrek sumindura eragin du guraso eta irakasleen artean.

Egoera muga-mugakoa da, eta hortaz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza eta Kultura Batzordean hainbat arinen eztabaidatzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikasturtea bukatu baino lehen beharrezkoak diren bitarteko tekniko eta ekonomikoak jar ditzan, eskola kontseiluekin bat etorritik, Atarrabiako Lorenzo Goikoa I eta II ikastetxeek bizi duten egoera larria konpontzeko.

Iruñean, 2003ko otsailaren 28an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko gobernua premiatzen da drogak kontrolatzeko egungo politikak hobetu ditzan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Estatuko gobernua premiatzen da drogak kontrolatzeko egungo politikak hobetu ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak ondoko mozioa tramitatzeko eskatu du, batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

2003ko apirilaren 8tik 18ra, mundu osoko gobernuetako ordezkariak Vienan bilduko dira, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak drogei buruzko 1998ko bilkura berezian 10 urterako prestatutako estrategiaren emaitzak aztertzeko.

Biltzarrari begira, gobernuz kanpoko erakunde-en politika zuzen eta eraginkor baterako nazioarteko koalizioak ondoko kezka eta proposamenak aurkeztu ditu.

Legez kanpoko drogen trafikoak munduaren garapenean duen eragina gero eta handiagoa izateak eta hori kontrolatzeko politikak kezkatuta gauzkatenez, ondoko gogoeta egin eta hauxe proposatu nahi dugu.

Ikus dezakegunez, drogak kontrolatzearen herrialde gehienetan aplikatzen diren politikak saiatzen dira osotara betetzen sorgogarriei buruzko nazioarteko konbentzioak (1961, 1971 eta 1988). Frogatu denez, ordea, politika horiek ez dira aski legez kanpoko drogen trafikoari aurre egiteko –aitzitik, trafikoa areagotzen lagundu

dute–, eta kalterako era badira; izan ere, legez kanpoko drogen trafikoaren kate-maila ahulena osatzen dutenek, alegia droga kontsumitzaileek, mandatariek eta legez kanpoko laborantzari aritzen diren landa eremuko herriek, neurrigabe pairatu dituzte drogak kontrolatzeko politikaren eragin kaltegarriak. Horien artean, ondokoak aipatzen dira:

a. Drogen trafikoaren kate-maila ahulena osatzen dutenen oinarriko giza eskubideak –politikoa, ekonomikoa, kulturalak, osasunaren arlokoak eta abar– urratzea.

b. Legez kanpoko laborantzari aritzen diren nekazarien eta droga kontsumitzaileen kriminalizazioa eta diskriminazioa, bai eta legez kanpoko drogen ekoizpen eta trafikoan erantzukizun gutxi edo batere ez duten beste herritar sektore behartu batzuen ere, eta horrek marginalizazioa dakar.

c. Diruak debeku-bidean xahutzen dira, eta hobeki erabil litezke programa egokiak ezartzen, prebentzioarako, kaltea gutxitzeko eta tratamenduetarako.

d. Ingurumenari eragindako kaltea; izan ere, laboreak desagerrarazteko eta ordezteko, bide ez jasangarriak erabiltzen dira.

e. Nazio Batuen drogei buruzko konbentzioak sinatu dituzten estatuen subiranotasun nazionalaren urraketak, eta bereziki droga-ekoizle deituriko herrialdeena.

f. Zuzenbidearen estatuaren higadura; izan ere, kontrol demokratikotik at dauden kontrol organo nazional eta nazioartekoak sortu dira, eta bidegabekeria eta ustelkeria zabaldu.

Hori dela eta, uste dugu drogen kontrol politika hauek ez direla eragingarriak, ez dutela balio eta traba handia direla legez kanpoko drogen fenomenoari aurre egiteko estrategia berritzaileak sartzeari begira, hala estrategia globalak nola tokian tokikoak. Uste dugu egungo politika indartzearen ondorioz drogen egoeraren okertze bat gertatuko dela eta jendearen artean politika honen sinesgarritasun falta hedatuko dela.

Gainera, sumatzen dugu drogen egungo kontrol politika gertatu dela ekonomiaren globalizazio egoera batean eta merkataritzaren liberalizazio egoera batean, eta prozesuok sortzen ahal dituz-

ten baldintzek drogen kontrol politika gehienak benetan gauzatzea zailtzen dutela.

Drogen kontrol politikek, gure ustez, gobernu onaren gaineko oinarrizko printzipioak behar dituzte gidari, hala nola Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotakoak, Bioaniztasunari buruzko Konbentzioan jasotakoak eta bestelako nazioarteko akordioetan jasotakoak. Bereziki ditugu aipagarri pertsona orean eskubide sozial, ekonomiko eta politikoak nahiz aniztasun kulturala bermatzen dituzten printzipioak, bai eta planetaren jasangarritasuna kontuan hartzen duten printzipioak ere. Gure iritziz, politika horien helburu nagusia behar luke izan drogen ekoizpenak, trafikoak eta kontsumoak eragin litzaketan kalteak gutxitzeko egiturak sortzen laguntzea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamenak aurkeztu ditugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatuko gobernua premiatzen du drogak kontrolatzeko egungo politikak hobetzea helburu duten hurrengo neurriak susta ditzan nazioarteko foreotan eta, orobat, estatuan, horrela politika horiek eraginkorragoak, bideragarriagoak eta sinesgarriagoak izanen baitira.

a. Legez kanpoko drogak ekoizteko erabiltzen diren landareen laborantza ez jazartzea ekoizle txikiengan, eta egiturazko neurriak abian jartzea arlo ekonomiko, politiko eta sozialean, zerikusia duten sektore guztiekin adostuta, labore mota horren mendekotasunari bestelako aukera errealak eskaintzeko.

b. Laboreen nahitaezko deuseztatze operazioak etetea, baldin eta eragin kaltegarria badute ingurumenean eta giza osasunean, hala nola hegazkin bidez egiten diren egintza suntsitzaileak, herbizida eta hosto-galtzaileak erabiliz.

c. Aparatu militarra drogen aurkako lanetatik atuztea, eta legez kanpoko laboreen eremuak ere desmilitarizatzea.

d. Droga kontsumoa ez jazartzea, eta arazo hori duten tokian tokiko biztanleentzako bilatzea arautze modu sozialki eta kulturalki onargarriak; halaber neurri zabalak abian jartzea drogen kontsumo arazotsua prebenitzeko eta tratatzeko, eta kaltea txikiagotzeko.

e. Drogen kontrolari buruzko legedi berezi oro indargabetzea, baldin eta unibertsalki onetsitako lege- eta prozedura-bermeen aurkakoa bada.

f. Tolerantzia eta jarrera irekia –funtsezkotzat hartzen dira sistema demokratikoan– ezaugarri dituen gizartearen, aniztasunaren aldeko gizartearen, eskubide guztiak bermatzea, eta, bereziki, drogekin zerikusia duen adierazpen askatasuna pertsona guztientzat.

g. Herrialde eta herri guztiek haien lege sistemen gaineko subiranotasuna izan dezatela bermatzea eta saihestea droga-ekoizle deituriko herrialdeei egin ahal zaizkien inposaketak.

h. Bermatzea narkotrafikoari konfiskatutako diru eta ondasunen gardentasuna eta gizarte erabilera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu abian jar dezaten gai psikoaktiboen sailkapen metodo berri bat, alde batera utzita gai horiek egun legezkoak diren ala ez, eta oinarri hartuz gai horiek giza osasunean eragiten duten kalteari buruzko datu zientifiko egiaztatuak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu egin dezaten, mozio honetan eginiko ohar eta proposamenekin bat, estatu sinatzaileei aukera zabalagoak eskaintzearen alde, horrela tokian-tokian politika alternatiboekin saiakuntzak egin daitezen eta, ondorioz, politika zuzen eta eraginkorragoaren bilaketan irakaspen erabilgarriak atera ahal izan daitezen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Adierazpena, arrazakeriaren aurkako estatu plan bat onestearen alde Amnesty International egiten ari den kanpainaren aldekoa

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2003ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, ondoko erabaki hau hartu zuen:

Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak, 2003ko otsailaren 21ean erabaki zuen igortzea arrazakeriaren aurkako estatu plan bat onestearen alde Amnesty International egiten ari den kanpainaren aldeko adierazpen proposamena, berretsia izan zedin. Hori ikusirik, erabaki dugu:

Aipatu proposamenaren edukia berrestea. Hona testua hitzez hitz:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du arrazakeriaren aurkako estatu plan bat taxutu, onetsi eta abiaraztera. Plan horrek, besteak beste, honako alderdi hauek hartuko ditu aintzat:

A) Lanaren esparruan, osasunean, hezkuntzan, etxebizitzaren arloan, gizarteratzean edo beste edozein arlotan, etorkinen kontrako ekintza eta portaera xenofobo, intolerante eta bereizkeriazkoen aurka egiteko neurri politikoak, gizarte eta hezkuntza arloetakoak eta komunikabideen bidez sentsibilizatzeak.

B) Berariazko neurriak, Estatuko agenteen eskutik torturarik eta tratu txarrik izan ez dadin, ez eta, aurrekoaren ildotik, segurtasun indarretako kideen artean eta justizia administrazioan izan daitezkeen arrazakeria agerpenik ere. Neurri hauek, besteak beste:

1. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 4., 7. eta 12. protokoloak osorik berrestea eta, halaber, langile etorkin guztien eta haien familieta-ko kideen babesari buruzko Nazioarteko Konbentzioa.

2. Indar armatuetako diziplina araudietan arrazakeriaren inguruabar astungarria sartzea, jasorik ez dagoenean, eta horrekin batera, arrazakeriaz ustez jokatzearatik ikerketaren xede diren pertsonak etorkinekin zuzenean arizetik behin-behinekoz aldentzeko neurriak hartzeko aukera; era berean, agintean dauden ofizialentzako jarduteko gida bat, arlo horretan gertatzen diren abusuak salatzen ez dituenari edo babesten dituenari zehapenak ezartzeko.

3. Biktimen eskubideen alde egitea, polizia-etxeetan edo bestelako polizia-bulegoetan infor-

mazio orriak eta afixak paratuz -gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta arabieraz-, eta toki nabarian erakusgai jarritz salaketak aurkezteko prozedurari buruzko informazioa.

4. Aldizka, estatistikak ematea argitara, segurtasun indarrei egotzitako arrazakeriazko kasuen inguruak edo tratu txarren salaketenak (zaintzapean egonik hildakoak, Estatuko agenteek egindako bortxaketak eta sexu-erasoak, indarraren gehiegizko erabilera), alderdi etnikoarekin lotura dagoenean, kasu horietan irekitako prozedurenak, hartutako kautelazko neurriak, zigortuz gero ezarritako zehapenena eta abar.

5. Arrazakeriaren kontra egiteko Zigor Kodearen erreformak, hura 1996an onetsi zenetik hona, nola gauzatu diren zaindu eta ebaluatzekeo neurriak (adibidez, arrazakeriaren inguruabar astungarriaren erabilera eta abar). Era berean, neurriak hartu behar dira polizia agenteek eta auzitegiek tratu txarren edo tortura kasuen oinarrian edo arrazoietan arrazakeria ote dagoen egokiro azter dezaten bermatzeko, pertsona horren atxiloketa eragin duen faktorea haren jatorri etnikoa izan den ala ez argitzea barne.

6. Arrazakeriazko kasuetan ikerketa batzordeak eratzeko aukera aztertzea; beste herrialde batzuetan hala egiten da. Batzorde horretako kide arlo horretan independentzia, inpartzialtasuna eta esperientzia aitortua duten pertsonak izanen lirajteke.

7. Estatuko agenteek egindako bortxaketak eta sexu erasoak torturatzat hartzeko neurriak. Zigor Kodearen interpretazioa torturaren inguruan ez da Torturaren aurkako Konbentzioaren 1. artikulua-rena baino murriztaileagoa izan behar.

8. Atxilotzeko prozeduretan eta atxiloketak egitean bete beharreko protokolo argi eta zehatza hartzea, nazioarteko arauekin bat, edozein motatako atxilotze edo espetxeratzea ezarria duten pertsonen babeserako printzipio gisa. Atxilotuek familiakoekin eta abokatuekin egoteko eta baliabideak eskuratzeko aukera izan behar dute berehala. Atzeritarren atxilotze-zentroetan eta polizia-etxeetan jokabiderako kodea egon beharko da, atxilotuen erregistroa, leku-aldatzeak eta zaintza arautuko dituen.

9. Atxilotutako emakumeak zaintzeko emakumezko poliziak edo guardia zibilak hartzeko politika aktiboa.

10. Asiloa eskatzen dutenak, errefuxiatuak edo etorkinak kanporatzen direnean, mugimenduak galarazteko bitartekoak eta indarra erabiltzeko jarraibide argiak emanen dituen jarduketa protokolo bat hartzea.

11. Lagundurik ez dauden haurren eskubide guztiak bermatuko dituzten neurriak hartzea, haurren eskubideei buruz Nazio Batuek eginiko Konbentzioarekin bat.

12. Legeria betearazteko neurriak, funtzionario publikoak giza eskubideen arloan eta arrazakeria-

ren kontra prestatuz eta sentsibilizatuz, bereziki justizia administrazioakoak, immigraziokoak eta segurtasun indar eta gorputzen esparruan.

Plana eta estrategia prestatzeko prozesuan parte hartu behar dute, horien erantzule diren agintariekin batera, eragindako taldeen ordezkariak, gobernuz kanpoko erakundeek eta arrazakeriaren eta justizia administrazioaren gaitan lan egiten duten adituek; planean eta estrategian neurtzeko moduko helburuak eta zaintzako mekanismoak sartzeko ahalegina gin beharko da.”

Iruñean, 2003ko martxoaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da Aitzoingo kuarteleko tiro-poligonoa itxi dezan

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa premiatzen da Aitzoingo kuarteleko tiro-poligonoa itxi dezan”.

Biltzarreko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2003ko martxoaren

ren 11n egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2002ko azaroaren 12ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoingo tiro-eremua desagertarazteko urratsak eman ditzan

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Foru parlamentari Joxe Pernando Barrena Arza, Martín Arbizu Goñi, Igor Arroyo Leatxe, Shanti Kiroga Astiz, Aurkene Ortiz Egizabal, Mariné Pueyo Danso eta Félix Puyo Rebollo jaunandreek ondoko mozioa aurkeztu zuten: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aitzoingo tiro-eremua desagertarazteko urratsak eman ditzan”.

Biltzarreko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2003ko martxoaren 11n egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2002ko azaroaren 12ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Defentsa Ministerioari berriro eskatzen zaio Ezkaba mendian militarrek su-armekin egiten dituzten maniobrak berehala gera ditzan

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK ONETSIA

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2003ko martxoaren 11n egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Defentsa Ministerioari berriro eskatzen zaio Ezkaba mendian militarrek su-armekin egiten dituzten maniobrak berehala gera ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Defentsa Ministerioari berriro eskatzen zaio Ezkaba mendian militarrek su-armekin egiten dituzten maniobrak berehala gera ditzan

Nafarroako Parlamentuak Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak 2000ko azaroaren 21ean onetsitako erabakia berresten du.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Goi-mailako Musika Kontserbatorioari buruzkoa*FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak goi-mailako Musika Kontserbatorioari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko martxoaren 12n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregulamentuaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

LOGSEK jasotako goi mailako musika ikasketak jartzeari buruzko eta Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortzeko martxoaren 27ko 7/2002 Foru Legea onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak. Lehendabiziko aldiz, luze eta zabal arautu ziren musika eta dantza ikasketak, arte dramatikoa eta arte plastikoak, gizartean haziz zihuan interesari eta eskariari erantzuteko.

Nafarroako Parlamentuak gehiengo handiz adierazi zuen Nafarroak, ohikoa izan duenez denez, goi mailako musika ikasketak eskaini behar zituela.

Foru lege horretako lehen xedapen gehigarrian, berriz, Nafarroan kontserbatorio berri bat eraiki beharra aipatzen zen. Halatan, lege horretan ondokoa xedatu zen:

Nafarroako Gobernuak 2002an hasiko ditu Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren eraikina eta eskola-eremuko ekipamendu, egokimendu eta azpiegitura obrak hasteko trami-teak.

Parlamentuko taldeen eta ukitutako eragileen artean argi gelditu zen Nafarroako Gobernuak ez zuela interes handirik Nafarroan goi mailako musika ikasketak ezartzeko, ez eta Nafarroan kontserbatorio berria eraikitzeke ere.

2003an sartu gara, eta ikusita Nafarroako Gobernuak ez duela ia-ia garatu lehen xedapen gehigarri hura, hauxe jakin nahi dugu:

1. Legea 2002ko martxoan onetsi zenez geroztik, zer neurri hartu ditu eta zer egin du Nafarroako Gobernuak kontserbatorioa eraikitzeke?

Nafarroako Gobernuak 2002ko martxotik 2003ko martxora bitarte hartu dituen neurrien zerrenda jaso nahi dugu.

2. 2002ko martxotik 2003ko martxora bitarte ez da egin kontserbatorio berria Mendebaldeko orubean eraikitzeke proiektua taxutzeko lehiaketaren deialdia. Zergatik?

3. Noizko izanen du Nafarroako Gobernuak taxututa kontserbatorioa eraikitzeke proiektua? Noizko uste du lizitatu ahalko direla obrak?

4. Hezkuntza eta Kultura kontseilariak zenbait agerraldi publikotan agindutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuak uste du kontserbatorioa 2003-2004 ikasterterako eraikita egonen dela?

Iruñean, 2003ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko 2003rako plantilla organikoa eta 2002ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko 2003rako plantilla organikoa eta 2002ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Arartekoaren otsailaren 28ko 11/03 Ebazpena, zeinaren bitartez bertako 2003rako plantilla organikoa eta 2002ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda igortzen baitira, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Arartekoaren Bulegoko 2003rako plantilla organikoa eta erakundearen zerbitzuan 2002ko abenduaren 31n lanean ari diren funtzionarioen zerrenda onestea, ondotik datozen 1 eta 2. eranskinen arabera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2003ko martxoaren 12a

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ERANSKINA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoko 2003rako plantilla organikoa

Lanpostua	Zenbat	Araubide juridikoa	Maila	Izendapen librea	Batera-ezintasuna	Lanpostua	Mailaren osagarria
Arioko aholkulari arduraduna	2	C	–	X	–	–	–
Aholkulari teknikoa	2	C	–	X	–	–	–
Arartekoaren Idazkaritza	1	G	–	X	–	–	–
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	F	B	–	35	20	–
Administraria	2	F	C	–	–	31,68	12
Gelazaina	1	F	D	–	–	22	15

F: Funtzionarioak

C: Arartekoaren behin-behineko kargua – izendapen librekoa

G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

2. ERANSKINA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko 2002-12-31ko funtzionarioen zerrenda

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostua	Egoera administratiboa
Lanpostu hutsa	B		Administrazio kudeaketako teknikaria	
Echeverria Uhalte, Celina	C	6	Administraria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
Lanpostu hutsa	D		Gelazaina	